

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
 PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
 ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
 ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakaria Navarra Arenan izan da, instalazioa irekiko duten astean

Bisitan, harekin batera izan dira Kultura, Kirola eta Gazteriako kontseilaria, Ana Herrera, eta Iruñeko alkatea, Joseba Asiron

Asteartea, 2018.eko irailak 25

Nafarroako


Lehendakaria, Uxue Barkos, Navarra Arena pabiloian izan da gaur goizean, Kultura, Kirola eta Gazteriako kontseilari Ana Herrerarekin eta Iruñeko alkate Joseba Asironekin batera. Instalazioa kudeatzen duen NICDO enpresako taldeak gidatuta, aurreikusten diren erabilera berrietarako (ikuskizun ezberdinak, biltzarrak, jardunaldiak edo moda-pasarelak) Navarra Arena egokitzeko egindako lanak ikusi dituzte.



NICDOko arduradunak Barkos Lehendakariarekin, Herrera kontseilariarekin eta Asiron alkatearekin batera, instalazioko pilotalekuaren bisitan.

Bisitan zehar, burututako azken jarduerak ezagutu ahal izan dituzte; esate baterako, eraikinaren edukiera ixteko eta iluntzeko edo hobekuntza akustikorako aukera ematen duten gortinak; prerriging parrilla, eszenatokietarako zintzilikatze puntu ezberdinak dituen; edo erabilera anitzeko aretoetako ekipamendua, 50 eta 320 pertsonarentzat, pabiloiko lehenengo eta bigarren solairuan. Azken hori Nafarroako Erresuma deitzen da, eta NICDOren eta Nafarroako Turismoren artean Komunitateko turismoa sustatzeko eta pabiloiko jarduerarekin duen lotura agertzeko egindako lankidetzak-akordioa erakusten du.

Horrez gain, in situ ikus ahal izan dituzte mugikortasun murriztuko pertsonentzako espazioak edota bideo-markatzaile funtzioa duten 6x4 metroko pantailak, pilotalekuan zein pista nagusian jarri dituztenak. Halaber, egiaztatu dute pilotalekua jada prest dagoela irailaren 29an, larunbatean, egingo den Masters Codere finalerako; hain zuzen ere, pabiloian burutuko den lehen ekitaldi publikoa izango da.



Lehendakaria pabiloiaren ezaugarriei buruzko azalpenak entzuten.

Orobat, bisitan zehar, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko kirol-eremuaren egoitza berrian eta Kirolaren Etxean izan dira, federazioen egoitzan, Navarra Arenan jada kokatuta baitaude. Eraikina NKGIk kudeatzen du, federazioekin instalazioen erabilera hitzartuta, orain arte Kirolaren Etxearekin egin izan den moduan.